

# GUGGENHEIM BILBAO



## Museoan jolasean

Museoko ibilbide honetan bi misio izango dituzu:

- Pistek adierazten dutena aurkitu eta aztertzea.
- Ikusten ez dena esploratzea zentzumen guztiak eta irudimena erabiltuta!

Hau behar duzu:

- Zentzumenak bizi-bizi izatea
- Begiratzeko, aurkitzeko eta sortzeko gogoia izatea.
- Pegatinak erabil ditzakezu marrazkiak hasteko eta arkatzez jarraitu dezakezu.
- Eskatu laguntza heldu bati, behar duzunean.

Aurtengo Gabonetan, natura ez dago kanpoan bakarrik: Museoaren barruan ere badago! Naturak era askotan inspiratzen ditu artistak. Jarraitu pista eta aurkituko dituzu belarrezko itsasoak, lokartutako haziak, sustrai ezkutatuak, teilako arrain bat, habia-eskulturrak, aztarnak eta arrastoak, lurreko babeslekuak...

Hasteko: itxi begiak eta entzun segundo batzuk. Zer soinu entzuten duzu? Nola marraztuko zenuke?

## Juego en el Museo

En este recorrido por el Museo tendrás dos misiones:

- Encontrar y analizar lo que indican las pistas.
- Explorar lo que no se ve, usando todos tus sentidos y ¡tu imaginación!

Solo necesitas:

- Todos tus sentidos bien activados
- Ganas de mirar, descubrir y crear
- La posibilidad de usar pegatinas para empezar tus dibujos y continuarlos con un lápiz.
- Pedir ayuda a un/a adulto cuando la necesites.

Esta Navidad la naturaleza no solo está en el exterior: también está ¡dentro del Museo! La naturaleza inspira a los artistas de muy diversas maneras. Sigue las pistas y encontrarás mares de hierba, semillas dormidas, raíces ocultas, un pez de tejas, esculturas de nidos, huellas y rastros, refugios de tierra...

Para empezar: cierra los ojos y escucha durante unos segundos. ¿Qué sonidos oyes? ¿Cómo los dibujarías?

## 1. pista: **Oinpean**

Begiratu ondo zorua. Zein kolore eta ehundura ikusten dituzu? Zorua segurutzat ematen dugu; ez dugu begiratzen, baina imajinatu horren azpian egon daitekeen guztia!

Idatzi zer egon daitekeen azpian:

- ✓ sustraiak ✓
- ✓ lokartutako haziak ✓
- ✓ tunelak
- ✓ hodiak eta kableak
- ✓ animalia txikiak
- ✓ misterioak

Zer kolore dute lurzoruek naturan? Erabili pegatinak eta sortu tonu horien paleta txiki bat. Marraztu zoru honen azpian imajinatzen duzuna.

## 2. pista: **Arrastoak**

Bilatu lurrez, lokatzez edo aztarnaz egindako artelan bat edo batzuk. Zein usain dute buztinez egindako obrek? Egurrezkoek? Eta hosto lehorrez egindakoek? Marraztu usain bat.

Lurrean arrastorik utzi ahalko bazenu, zer-nolako forma izango luke? Marraztu hemen nolakoa izango litzatekeen zure arrastoa edo marka planetako lurrean.

## Pista 1: **Bajo tus pies**

Observa el suelo que pisas. ¿Qué colores y texturas ves? El suelo es algo que damos por sentado; no nos fijamos en él, pero ¡imagina todo lo que puede haber bajo la superficie!

Escribe lo que podría haber debajo:

- ✓ raíces ✓
- ✓ semillas dormidas ✓
- ✓ túneles
- ✓ tubos y cables
- ✓ pequeños animales
- ✓ misterios

¿Qué colores tienen los suelos en la naturaleza? Usa las pegatinas y crea una pequeña paleta de esos tonos. Dibuja lo que imaginas bajo este suelo.

## Pista 2: **Huellas**

Busca una o varias obras de arte realizadas con tierra, barro o huellas. ¿A qué huelen las obras hechas con barro? ¿Y las de madera? ¿Y las hojas secas? Dibuja un olor.

Si pudieras dejar una huella en la tierra, ¿qué forma tendría? Dibuja aquí cómo sería tu rastro o marca en el suelo del planeta.

### 3. pista: **Zuhaitzak dituen aretoa**

Begiratu hostoak, enborrak eta adarrak, eta bihurtu zaitez detektibe botaniko. Bilatu hauek:

- ✓ itzal bat
- ✓ ehundura bat
- ✓ forma harrigarria duen adar bat

Zein zuhaitz da zure antzekoena? Zergatik hautatu duzu? Formagatik? Tamainagatik? Izaeragatik? Zuhaitz horrek hitz egiterik balu, zer esango luke?

Kopiatu zuhaitz hori eta eman zure ezaugarriren bat: zure betaurrekoak, irribarrea, orrazkera, espresioa...



### Pista 3: **Sala con árboles**

Observa las hojas, los troncos, las ramas y conviértete en detective botánica/o. Busca:

- ✓ una sombra
- ✓ una textura
- ✓ una rama con una forma sorprendente

¿Qué árbol se parece más a ti? ¿Por qué lo has elegido? ¿Por su forma? ¿Su tamaño? ¿Su carácter? Si este árbol pudiera hablar, ¿qué diría?

Copia ese árbol e incluye algún detalle tuyo: tus gafas, tu sonrisa, tu peinado, tu expresión...



#### 4. pista: **Arrainak eta habiak**

Bilatu material bereziz egindako arrain bat. Zer beste materialekin sor daiteke arrain baten forma? Hartu pegatinak "pieza" gisa eta sortu animalia baten silueta.

Sabaira begiratu, eta habia-formako eskultura batzuk aurkituko dituzu: nor bizi liteke eskultura horietan? Benetako animalia ala irudimenezkoa? Marraztu habian bizi daitekeen horren erretratua.

#### Pista 4: **Peces y nidos**

Busca un pez de materiales inesperados. ¿Con qué otros materiales se podría trazar la forma de un pez? Crea la silueta de un animal usando las pegatinas como "piezas".

Cerca de los techos encontrarás unas esculturas en forma de nidos: ¿quién podría vivir en estas esculturas? ¿Un animal real o imaginario? Dibuja un retrato del habitante del nido.

Zer ikusi duzu gaur, aurretik ikusi ez duzuna? Marraztu errealitatean ez dagoen zerbait, baina gaur ikusi duzuna edo agian artista batek imajina lezakeena:

- ✓ landare erraldoi bat
- ✓ ezkutatutako animalia bat
- ✓ bizirik dagoen eskultura bat
- ✓ zuhaitz bat oinez...

Erabili irudimena!

¿Qué has visto hoy que no habías visto antes? Dibuja algo que no existe en la realidad, pero que has contemplado hoy o que quizás un artista podría imaginar:

- ✓ una planta gigante
- ✓ un animal escondido
- ✓ una escultura viva
- ✓ un árbol caminando...

¡Imaginación libre!